

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

AMURRIKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Eratzea Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea, 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako eta Batzar Nagusietako hauteskundeetarako

Ediktua

Bat etorri Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 14.1 artikuluan xedatutakoarekin, apirilaren 3ko 207/23 Errege Dekretuaren bidez udal hauteskundeetarako eta Batzar Nagusietako hauteskundeetarako deia egin zen, eta, honen bidez, jakinarazten da gaur eratu dela Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eta honako hauek osatzen dutela:

Lehendakaria: Rodrigo Testardini Crespo jauna, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2 zenbakiko epaitegiko epailea eta barrutiko dekanoa.

Bokal judizialak: Juncal Andres Gallego andrea, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 1 zenbakiko epaitegiko epailea, eta Maria Jesus Menida Gobantes andrea, Aiarako bake epailea.

Eskualdeko hauteskunde batzordeko idazkaria: Leire De Lucas Almarza andrea, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2 zenbakiko epaitegiko justizia administrazioko legelaria.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren (HAOLO) 186.4 artikulutik eratorritako eskaerei dagokienez, bitarteko hauek jarri dira eskuragarri apirilaren 6tik 10era: posta elektronikoa (JuntaElectoral-Amurrio@justizia.eus); WhatsApp (688673048) edo aurrez aurreko arreta, alde zuzenetik zenbaki horrekin harremanetan jarrita.

Eta horrela jasota gera dadin eta ALHAOn argitara dadin, eman eta izenpetzen dut, Amurrion, adierazitako egunean.

Amurrio, 2023ko apirilaren 5a

Idazkaria

LEIRE DE LUCAS ALMARZA